

---

**ARNAS BARRIA**

---

Jaunaren arnasa da...  
zerutik etorri da  
lurra gaizkatzera;  
argiaren indarrez  
illuna urratu bear  
izarretan bera.

**ONDAMENDIA**

Gizadia jausita,  
berenez okerrera  
makurtuta dago;  
indartsuak zapaltzen,  
beartsuak azpian  
gero ta miñago.

Gizadi oro egon  
sastei ustel antzera  
gaisoak artuta;  
osagillea, nun, da...  
lurreko semietan  
indarrak aulduta...

Uri aundietara  
begiratu ezkerro  
indarra zan nausi;  
burdiñea ta sua  
eriotz ta odola  
zergaitik nagusi...

Gizadia nunnaitan  
egiatik igesi  
zoroen bidetan;  
gizadiaren etsaia  
arrokeriz ase ezinik  
ondamendietan...!!!

**NOIZ ARTE?**

Samiña ta negarra,  
larri, dabilatzaz deika  
Aitaren aurrean;  
noiz arte ainbeste min  
biziak ondatuaz  
zoritxar artean?

Lurra ikaratu da  
Arriak lotsaraziz  
gizonen miñetan;  
ibaiak gorri doaz

itxaso sabelera  
ikus-min baltzetan.

**AITAREN ERRUKIA**

Semien zoritxarra  
ezin geiago jasan  
Aitaren biotzak;  
zuzentasun indarrez  
arteztu nai zituan  
gizonen bizitzak.

Sorkaldean sortu zan  
egiaren abotsa  
aragiz jantzirik;  
egizko gizona zan  
Egillearen itza,  
lurra arriturik.

**ABOTSA**

Erbear t'eriotzaz  
naikotu dabe Aita  
semien miñetan;  
Semea igurtzi dau  
ta lurrera bialdu  
salbamen lanetan.

Beartsuen aldezko  
jakituria dakar  
bideak argitzen;  
giza-buru-biotzak  
aureratu nai ditu  
egiak oroitzen.

Goserik ez dau gura,  
ez dau nai zurbildurik  
argalez gaisorik;  
bera da bizi jabe  
lur ta ondasunak  
semeentzat sorturik.

Miseririk ez dau nai...  
ez da, berez, zillegi  
beartsu iltea;  
eskurik samurrena  
beartsuentzat dauka  
eskeintzen betea.

**GILTZAPETUAK**

Giltzapetuak dagoz  
kaleko espetxetan  
ta norbere baitan;  
egikera larriak...  
katei orrek apurto  
nai ditu egitan.

Gizonak gizonari  
sort dausoz lakioak  
burdin kateizkoak;  
egi-zaletasuna  
galdu da gizartean...  
zorigaiztokoak!!

Gizartean banaka...  
gizartean erri lez  
galdu zan egia;  
ortik dator burruka,  
sarri, ustelkeria,  
eriotz bidia.

Jainko Bialduari  
ez jagokizan ongi  
ainbeste txarkeri;  
lotsea gizonari,  
ta lotsea lurrari,  
zaindu ebanari.

Zapaltzaille itsuak  
argitutera dator  
egiaren bidez;  
iñori lur kentzea,  
iñoz, ez da zillegi  
nauskeri sapaltzez.

Lurra udabarria,  
gozarotsu, maite dau  
eguzki argitan;  
gizonak bere egia  
gozartu nai zearo  
ardura aunditan.

Bakea gizartean  
bakea norberegan,  
egiaren itza;  
zuzenbide garbian,  
legez ta maitasunez,  
aurkitzen biotza.

PAULIN